

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NLk 680.000 euroan lizitatu ditu Altsasuko enplegu-agentzia berria egokitzeko obrak

Aurreikuspenen arabera, obrak azaroan hasi eta martxoan amaituko dira, eta 2019ko ekainean ireki ahal izango da jendearentzat

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 8

Nafarroako Gobernuak lehiaketara atera du [Altsasuko enplegu-agentzia berriaren obra-kontratua](#), zeina Nafar Lansarek eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) partekatuko baitute.



Bulegoaren fatxada nagusiaren altxaera.

Iruña Hiribidean dagoen antzinako bidezainen etxea egokitzeko egingo dira obrak. Eraberritzelantarako 679.541,72 euroko gastua aurreikusten da, eta Estatuko Administrazio Orokorretik datozen funtsen kargura finantzatuko da.

Aurreikuspenen arabera, obrak azaroan hasi eta martxoan amaituko dira, eta 2019ko ekainean ireki ahal izango da jendearentzat. Barruko antolamenduak egokitu dira, egitura aldatu gabe.

Beheko solairua NLren eta SEPEren eguneroko arretara bideratuko da, erabilera horretarako behar diren gela eta zerbitzuekin. Lehenengo solairua trebakuntzara, artxibora, kanpo-laguntzetara eta instalazio-geletara bideratuko da.

Instalazio berriei esker, hobetu egingo da arreta. Langabeek “wifi gune” bat izango dute, eta, han, izapideak egin ahal izango dituzte online, eta euskarri informatikoa izango dute lan-bilaketari, ikastaroetan izena emateari eta abarri lotutako zenbait kudeaketa giteko.

Halaber, enpresei zerbitzu hobea emateko, agentziak areto eta bulego gehiago izango ditu, han langileak hautatzeko prozesuak egin daitezten. Egungo agentziak bulego bakarra dauka. Areto horietan, orobat, taldeko ekintza gehiago eta trebakuntza-jarduera edo gaitasun profesional eta pertsonalak garatzeko jarduera gehiago egin ahal izango dira.

Azkenik, aparkaleku handiagoa izango du agentziak.

Zerbitzu gehiago eta hobeak emateko instalazioak hobetzearekin batera, agentzia neurriak hartzen ari da, ahal den neurrian joan-etorriak saihesteko: dokumentazioa posta elektronikoa bidez trukatzeko, eta, NLren estrategiaren baitan, Interneten, mugikorrerako aplikazioen eta telefonoaren bidezko tramitazioa bultzatzeko.

Zehazki, beheko solairuko 183,35 m²-tan jardungo da: SEPErentzat gordetako gunea (22,3 metro karratu bulegorako, eta beste 18 metro

karratu itxarote-eremurako), NLren gunea (37 metro karratu bulegorako, eta 18 metro karratu itxarote-eremurako), eta, horiez gain, komuna, atariak, erabilera anitzetarako gela bat, areto bat, bi zuzendaritza-bulego eta orientatzaile batentzako beste bulego bat.

Lehenengo solairuak 188 metro karratu inguru izango ditu, eta gunek hauek: itxarote-eremua, bi bilera-gela, trebakuntza-gela bat, artxiboa eta biltegia, eta bi bulego. Bigarren solairua libre geratuko da, etorkizunean zabalkuntzak egin behar badira ere.

Lokala, alokairuan

Altsasuko egungo enplegu-agentzia alokatutako lokal batean dago (47.000 euro inguru, urtean), García Ximénez plazako 3. zenbakian. Kostu hori murrizteko, NLk proposatu zuen instalazio berriak Bidezainen Etxean kokatzea.

2017ko irailean, enplegu-bulego berriak egiteko proiektua lizitatu zen. Arqyme Barricarte y San Román C.P-ri esleitu zitzaion, eta joan den abenduan entregatu zen.

Obra hori zenbait urtetarako izango da. 2018ko urri edo azaro aldera hasiko da egiten (300.000 euro inguru), eta 2019ko martxoan amaituko da (385.000 euro).

Agentzia 11.832,48 m²-ko partzela batean kokatuko da; partzela horretan, suhiltzaileen eraikina, Udaltzaingoarean eraikina, heliportu bat eta Obra Publikoen biltegiak ere badaude.